

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 7/2023

ERABAKIA,(...) (...) TALDEKO LEGEBILTZARKIDEAK GAI HONEN INGURUAN EGINDAKO KONTSULTARI BURUZ: GOI-KARGUDUN OHI BAT ENPRESA PRIBATUAN LANEAN HASI IZANA.

1.- Etika Publikorako Batzordearen (EPB) posta elektronikoan, (...) (...) taldeko legebiltzarkideak bidalitako mezu elektroniko bat jaso da. Bertan, kontsulta bat egiten dio Batzorde honi, goi-kargudun ohi batek, zituen erantzukizunak utzi ondoren, enpresa pribatuan lanean hasi izanari buruz.

2.- Idazkian adierazten duenez, (...)ko zuzendari ohiak aparteko baimen bat eskatu zuen sektore pribatuan lan egin ahal izateko, eta (...) enpresan zuen lanpostu berriari buruzko informazioa bidali zion administrazioari, baina ez zuen Jaurlearitzaren erantzunik jaso.

Halaber, mezuan adierazten du zalantza gutxi dagoela (...)ren eta (...) sozietatearen arteko harremanari buruz; izan ere, sozietate publikoak berak 2018ko abenduan iragarri zuen "(...) startup moduan eratuko zela, eta, beraz, (...) taldearen laguntza izango zuela (...) inkubagailuaren bidez".

Legebiltzarkideak bidalitako idazkiaren arabera, 2 urteko epe horretan bertan, (...)ko zuzendaria beste bi enpresa pribatutan hasi zen lanean, baina kasu horietan ez zuen kontsultarik egin, enpresek ez zuten egoera horren berri eman eta Jaurlearitzak ez zuen detektatu goi-kargudun ohi interes-gatazka baten aurrean egon zitekeenik.

3- EPB honi eskatzen dio azter dezala kargudunarekin hain harreman zuzena izan duen eta ziurrenik izango duen enpresa pribatu batera zuzenean lan egitera joatea ea bat datorren Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) hainbat artikulurekin, ea portaera horiek sendotu egiten duten politikaren zentzu etiko eta morala, eta ea laguntzen duten herritarrek Jaurlearitzaren eguneroko jardunean duten konfiantza leheneratzen.

4.- Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, EPBren eginkizuna da EJK aplikatzearen inguruan EAEko Administrazioiko eta haren sektore publikoko kargu publikodunek zein beste edozein instantziak egindako kontsultak ebaztea.

5.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren paragrafoak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du aho batez:

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1.- 2013ko maiatzaren 28an, Gobernu Kontseiluak Etika eta Jokabide Kodea onartu zuen, zeina 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota baitago. Bi helburu hauek lortzeko sortu zen kodea: politikaren etika-zentzua berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza leheneratzeko.

Horretarako, aipatutako kodeak zehaztuta dauka zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkieken Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezten dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen helburua da jardun publikoak dagokion betebeharrak etikoak eta eginkizun sozial bat betetzea, saiatzen baita gizarteak interes komuna kudeatzen duenarengan jartzen duen konfiantza legitimoa mantentzen eta bizitza politikoan egiten duen jardunaren gardentasuna zaintzen.

Lege horren II. kapituluak funtzio garrantzitsua du: kargu publikodunen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak ezartzea.

Horren helburua ez da mugatzen zerbitzari publikoari dagokionez babestu eta bermatu nahi den eredia adieraztera edo ezagutaraztera; horrez gain, arau-testua da eta, hortaz, lege-indarrez

ezartzen dira karguari dagokion funtzio publikoan jardutean aintzat hartu beharreko betebeharrak.

Ilido horretan, Etika eta Jokabide Kodeak bere egiten du 1/2014 Legearen II. kapituluaren edukia (lege horretan arautzen dira kargu publikodunen jokabide-kodea osatzen duten printzipio orokorrak).

Era berean, 1/2014 Legeak kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunak betetzean kontrola sendotzeko eta gardentasuna sustatzeko. Horren arauketa egungo Etika eta Jokabide Kodean dago jasota.

3.- Etika eta Jokabide Kodeak bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketarako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonek helarazitako gai eta zalantza etikoei.

4.- Horretarako, EJKren 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, Etika Publikorako Batzordearen eskumena da "Etika eta Jokabide Kodean jasotako balioen, printzipioen eta jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea".

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Batzorde honen irizpenaren mende jarritako gaiak zehazki aztertu aurretik, adierazi behar da Etika eta Jokabide Kodeak interes-gatazkekin lotutako zenbait jokabide, jarrera eta portaera debekatzen edo saihestea exijitzen badu ere, gai horretan indarrean dagoen araudia –zehazki, kargua bete aurretik edo ondoren jarduera jakin batzuetan aritzeari buruzkoa– jasota dagoela Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunek eta haien parekatuek bateratu ezin dituzten jarduerak berriaz arautzen dituen arau juridikoan. Xedapen horretan diziplina- eta zehapen-araubidea aurreikusten da, eta, legezkotasun-printzipioari jarraituz, lege-mailako xedapen bidez araututa

dago, zehazki, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean.

Hain zuzen ere, Etika Publikorako Batzorde honek hasiera-hasieratik mugatu nahi izan du bere lana etikaren eremura, eta, bereziki, Etika eta Jokabide Kodea beren borondatez atxikitzea erabaki duten kargu publikodunek eta parekatuek kodea betetzen ote duten jakiteko irizpenak ematera. Ordenamendu juridikoa betetzea ez da inola ere hutsala, nolana ere, baina ez da batzorde honen eginkizunetako bat administrazio-jardun baten legezkotasunaren inguruko iritziak ematea edo, hala badagokio, goi-kargudunen jokabidearen zuzentasun juridikoaz aritzea.

2.- Lege-testu hori azaletik aztertuz gero, ikusiko dugu bateragarritasun-baimenak eta horien kudeaketa eta kontrola Etika Publikorako Batzordeaz besteko organoei gordetzen dizkiela. Horrela, aipatutako legeak eta, zabalago, hura garatzen duen Dekretuak –156/2016 Dekretua, azaroaren 15ekoa, Kargu Publikodunen Betebeharrei eta Eskubideei buruzkoa– bateragarritasun-prozedura bat ezartzen dute hemen deskribatutako egoeretarako; prozedura horrek ez du aurreikusten EPB honen esku-hartzea fase bakar batean ere. Izan ere, batzordearen jarduna, administrazio-kudeaketa zaildu ordez, kudeaketa hori legegileak eta Eusko Jaurlaritzak aldarrikatutako printzipio eta balio etikoei egokitzen zaien ebaluatzerara bideratuta dago.

Batzorde honek ezin du bere gain hartu elementuak epaitzeko eta balioesteko eginkizunik, zeina, eremu subjektibotik kanpo, legeak beste organo espezifiko eta zehatz batzuen esku uzten baitu.

Ondorioz, ez dagokio EPB honi erabakitzea ea (...)ko zuzendariak Eusko Jaurlaritzako kargu publikoduna ez denetik bi urte igaro baino lehen jarduerak sektore pribatuan hasi izanak urratzen duen, ala ez, goi-kargudunen eta zuzendari publikoen bateraezintasunen esparruan indarrean dagoen ordenamendu juridikoa.

3.- Bestalde, Etika Publikorako Batzorde honek hainbat aldiz adierazi duenez (ikus, besteak beste, 4/2015, 1/2017, 5/2019 Erabakiak eta, berrikiago, 1/2021 Erabakia, hain zuzen ere kontsulta hau egiten duen pertsona berak planteatutako gai bati buruz hartutako erabakia), Etika eta Jokabide Kodeak agintzen duena mugaturik dago denbora batera eta gai batzuetara. Onartu zenetik daude definiturik muga horiek (Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaren bidez onartu zen), eta, gerora ere, ekainaren 26ko 1/2014 Legea onartu zenean, muga horiek ez ziren aldatu (Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen ditu lege horrek). Horrenbestez, 2. artikuluan zehazturik dauden kargu publikodunek bakarrik daukate Kodea bete beharra, eta betiere, ofizialki izendatuak izan ondoren eta, "banakako atxikipenaren" bidez, hitz eman ondoren beteko dutela han agintzen zaiena. Etika

eta Jokabide Kodearen testu bateginaren 18. artikuluan dator atxikipen hori; 2016ko azaroaren 28an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

4.- Denboraren ikuspegitik, Etika eta Jokabide Kodean jasotako balioak, printzipioak eta jokabideak aipatu diren kargu publikodunei aplikatuko zaizkie, legez ezarritako prozeduraren arabera izendatuak izan diren eta kodearekiko atxikimendua formalizatu duten unetik aurrera, eta kargudun gisa beren eginkizunak betetzen dituzten bitartean. Hala, kodearen ondorioen denbora-muga ezartze aldera, kargudun izendatuaren kodearekiko atxikipena elementu erabakigarria da hasierako unea finkatzeko (ikus 10/2017 Erabakia); Etika eta Jokabide Kodearen indar loteslea, berriz, desagertu egiten da pertsonak bere aginduei lotutako kargu publikoren bat bete ondoren bere erantzukizun publikoa uzten duenean legez ezarritako prozedura erabiliz.

5.- Laburbilduz, beraz, Etika eta Jokabide Kodeak Etika eta Jokabide Kodearen testu bateginaren 2. artikuluan aipatzen diren hartzaileei eragiten die, izendapena formalizatzen denetik kargu-uzteak ondorioak dituen arte. Testu bategin hori 2016ko azaroaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

6.- Erabaki honetan adierazi den bezala, Batzorde honek ezin du bere gain hartu elementuak epaitzeko eta balioesteko eginkizunik, zeina, eremu subjektibotik kanpo, legeak beste organo espezifiko eta zehatz batzuen esku uzten baitu.

7.- Gainera, Etika Publikorako Batzorde honek ezin ditu aztertu bere garaian EJKren agindupean egon ziren baina kargudun gisa zituzten erantzukizunak utzi ondoren dagoeneko kodearen agindupean ez dauden pertsonen eremu pribatuan egin ditzaketen jardunak.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez:

ERABAKIA:

Bakarra.- Ez da aintzat hartuko eta, ondorioz, artxibatu egingo da (...)k (...)ko zuzendari ohiari buruz aurkeztutako kontsulta; izan ere, pertsona hori EJKren aginduen mendeko kargu publiko

baten titularra ez zenean gertatutako inguruabarrei buruzkoa da kontsulta, erabaki honen azalpen-zatian adierazi bezala, eta adieraztea, era berean, kargu publikodunen bateraezintasun-araubidea, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2024 Legearen arabera, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako Langileen Erregistro Zerbitzuari dagokiola.

Olatz Garamendi Landa

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 27an.